

DEBAKO ZEZEN PLAZA

2008KO ZEKORKETAK - NOVILLADAS 2008



Debako 2008ko zezen ferian hiru ospakizun izan genituen –hiru zekorketa zaldi-hezlerik gabe–, eta hainbat gauza interesgarri eskaini zizkigutenean. Ergi oso ezberdinak toreatu ziren. Batzuk beste batzuk baino tankera hobea zuten, batzuk itxura eskasa zuten, beste batzuk handiegiak izan ziren, zekor mantsoak eta suharrak ere izan ziren eta bat edo beste makala eta txepelegia izan zen. Etorkizun handiko nobilleroak ikusi genituen eta gauza oso interesagarrak egin zitzuten, baina baten batek argi utzi zuen ogibidez erratu dela. Hori bai, orokorrean, ondo egoten eta publikoari gustua ematen gogor saiatu ziren.

Plazak, ospakizunak egiteko zezen-plaza karratua berezi honek, tankera ederra izan zuen aurten ere eta zoragarri agertu zen. Itxura ezin hobea zuen eta garbigarbi zegoen. Gainera, areneroek, torilleroek, zekorrak eramatzen dituztenek eta ateek ondo funtzionatu zuten Hitz batez, orokorrean lan ona egin zen, eta nabaritzen da antolakuntza seriosunez aritu zela. Hala ere, ez da bertan gozo gelditu behar eta xehetasunik txikiak ere tixeraz zaintzen jarraitu behar da.

Musika taldeko kideek berriz ere aparteko lana egin zuten. Abuztuaren 13an, berealdiko kontzertua eskaini zigutenean udako kontzertuen barruan, eta zekorketetan jo zitzuten pasodobleak oso gustuko izan genituen.

Publikoak harrera ona egin zuen. San Roque egunean pixka bat hotz egon zen eta oraindik ere zapiekin sariak eskatzea kostatzen zaio. Hala ere, nobilleroek, haien koadrilek eta laguntzaileek goraipatu egiten dute publikoa, ospakizunean jarrera bikaina izaten baitu.

Lehendakaritzan ordezkarri onak izan zituen. Batzuk zorrotzagoak izan ziren eta beste batzuk eskuzabalegiak agian, baina guztiek emandako funtzoak behar bezala bete zituzten.

Aurreko urteetan bezala, Paco Salegi izan zen zezenketaren aholkularia eta Isidro Aristi albaitaritzakoa. Azken hori Iñaki Urain mendarotarraren aguaziltxoa izan zen baita ere. Mendaroko gaztea pixkanaka-pixkanaka eskarmenua hartuz doa.



La feria taurina debarra de 2008, nos ofreció tres festejos -tres novilladas sin picadores- que tuvieron muchas cosas interesantes. Se lidiaron eriales de muy diferente condición. Unos mejor presentados que otros, algunos fueron escasos de pre-

sencia, otros se pasaron de grandes, hubo novillos mansos y bravos, y alguno que fue flojo y blando en exceso. Intervinieron novilleros con mucho futuro y que apuntaron cosas muy interesantes, y alguno que ya dejó claro que se ha equivocado de carrera. Eso sí, con la nota común de poner mucha voluntad para estar bien y agradar.

La plaza, el singular coso cuadrado donde se celebran los festejos, lució un año más, con mucha prestancia, alcanzando una nota muy alta. Aspecto immejorable, limpieza, buen funcionamiento de las puertas, de los areneros, de los torilleros y de los que arrastran los novillos. En definitiva, buen trabajo en términos generales que da una imagen de seriedad en la organización. Pero no hay que bajar los brazos y hay que seguir atendiendo con mimo hasta los detalles que nos parecen menores o menos importantes.

Los componentes de la banda de música volvieron a realizar una gran labor. Venían de deleitarnos con un excelente concierto el día 13 de agosto en el marco de los conciertos de verano, y en las novilladas nos gustaron y se gustaron con los pasodobles que interpretaron.

El público respondió bien. Estuvo un poco frío el día de San Roque y le sigue costando pedir los trofeos con los pañuelos, pero es un público muy elogiado por los novilleros, sus cuadrillas y sus acompañantes, por el exquisito comportamiento que tiene durante el festejo.

La presidencia estuvo bien representada. Unos fueron más estrictos y otros quizás demasiado generosos, pero todos cumplieron satisfactoriamente con las funciones encomendadas.

Como en años precedentes, Paco Salegi fue el asesor taurino, Isidro Aristi el asesor veterinario, actuando como alguacilillo el mendarés Iñaki Urain que, poco a poco, va adquiriendo "tablas".



Ivan Abásolo

San Rokeko zekorketa. Abuztuaren 16a

la beteta. Giro hotza.

Puerto de San Lorenzo Salamancako ganadutegiko lau ergi izan ziren. Itxura eta jokaera ezberdinak izan zituzten. Tankera eskasa izan zuten lehenengoak eta bigarrenak, eta hirugarrena eta laugarrenaren adarrak kapazu itxurakoak zituen. Plazako lehena mantsoa izan zen. Mugikortasun handia zuen eta pase ugari bi adarretatik. Zekor ezin hobea izan zen bigarrena, suharra eta estilo handikoa, eta burua makurtuta oldartzen zen, luze eta adar biak tinko eramanda. Hirugarrena mantsoa izan zen, oso gaizki toreatua eta torilen ateetan babestu zen. Laugarrena, zintzoa, eta luze eta neurriz oldartzen zen, toreatzeko bikaina.

Karteletan ezarritako ordena aldatu zen, antzinatasunarenagatik Ivan Abasolo Orduñako toreroari zegokiolako plaza irekitzea. Aldaketa sarreren leihatiletan eta plazako megafonian jakinarazi zen.

Ivan Abasolo, Orduñako, arrosa eta urrez jantzia; hiru zulaketa eta deskabello bat egin zituen(isiltasuna); eta zortzi zulaketa eta deskabelloa (txaloak abisu baten ondoren). **Raúl Cámara**, Madridarra, horiz eta urrez jantzia; ezpata (belarri 1); erdiz erdi erori zen (plazari bira).

Zekorketan Edurne Rodriguez izan zen lehendakari eta ez zuen arazorik izan. Autoritateen balkoian, Iñaki Galdos eta Peio Gonzalez foru diputatuak egon ziren zekorketa ikusten. Plaza ia beteta egon zen. Egun eguzkitsua izan zen, nahiz eta eguraldi iragarleek eguraldi txarra izango zela esan, Gipuzkoako kostaldean “euri-jasa moderatuak” egongo zirela iragarri baitzuten.

Ivan Abasolo borondatez aritu zen eta publikoa kausitzen saiatu zen, baina berde xamar dago oraindik ere. Zekorrak gehiegiz izan ziren berarentzat. Koadrilak ondo lagundu zuen. Lehenengo ergian, pase eder batzuk eman zituen; baina, orokorrean, ez zen zekorraren mailara iritsi. Bigarrena mantsoa eta zaila izan zen eta zortzi zulatu ere egin behar izan zizkion. Hala ere, gurutzetarekin abila izan zen eta bere bi zekorrak lehenengoan deskabellatu zituen.

Raúl Cámara. Neurriz hartu zuen, luze eta eskua jaitsita lehen zekorean. Iñaki Galdos foru diputatuari eskaini zion ergi hura. Ondo eginkiko serieak eman zituen adar bietatik. Ezpataz hil egin zuen eta belarri batez saritu zuten. Ospakizuna, bere osotasunean ikusita, San Roque egunerako sari txikia jaso zuen. Izan ere, esan bezala, publikoa hotz egon zen nobilleroekin.

Bigarren zekorean, beste ergi on bat, egiten bazekiela erakutsi zituen nobilleroak. Hala ere, erraztasunez desarmatu zuen zekorrak, zazpi aldz ere, eta horrek lanari bizitasuna kendu zion.

Kapotea ondo hartu zuen bere lotean eta lehen zekorrari egindako kitean, berez ospakizuneko beste kide bat zegokiona. Publikoak banderillero biak txalokatu zituen, egindako lan bikainarenagatik. Ezpata-kolpe erdi batez hil zuen, behetik. Erratzun-aldetik agurtu zuen.

Novillada del día de San Roque. 16 de Agosto

Casi lleno. Ambiente frío.

Cuatro erales de la ganadería salmantina de Puerto de San Lorenzo. De desigual presentación y comportamiento. Justos de presencia el primero y segundo de la tarde, y acapachados el tercero y el cuarto. Mansito el que abrió plaza. Tenía mucha movilidad y muchos pases por los dos pitones, excelente novillo el segundo, bravo y con clase que embistió humillando, largo y con fijeza por ambos pitones. Muy manso el tercero, que fue muy mal lidiado y se refugió en las puertas de toriles. Noble el cuarto, que embistió con largura y templanza, siendo muy bueno para el torero.

Se modificó el orden de intervención fijado en los carteles de toros ya que, por razones de antigüedad, correspondía abrir plaza al torero de Orduña Ivan Abásolo. La modificación fue oportunamente anunciada en el tablón de las taquillas y por la megafonía de la plaza.

Ivan Abásolo, de Orduña, de rosa y oro, tres pinchazos y descabello (silencio); ocho pinchazos y descabello (aplausos tras un aviso). **Raúl Cámara** de Madrid, de amarillo y oro, estocada (1 oreja); media caída (vuelta al ruedo).

Presidió la novillada Edurne Rodríguez, que no tuvo problemas. Presenciaron la novillada desde el balcón de autoridades los Diputados Forales Iñaki Galdós y Peio Gonzalez. Casi lleno en la plaza. Lució el sol a pesar de los malos presagios de los pronosticadores del tiempo, que anunciaron “lluvia de moderada intensidad” en la costa gipuzkoana.

Iván Abásolo mostró voluntad y ganas de agradar al público, pero está muy verde. No pudo con sus novillos. Estuvo bien acompañado por su cuadrilla. En el primer eral dio algunos pases de bella factura pero, en general, estuvo por debajo de su novillo. El segundo fue un manso difícil al que dio hasta ocho pinchazos. Sin embargo, mostró habilidad con la cruceta, descabellando al primer intento a sus dos novillos.

Raúl Cámara. Tomó con templanza, largo y bajando la mano a su primer novillo, que brindó al Diputado Foral Iñaki Galdós. Dio, por ambos pitones, series de muy buena ejecución. Mató de una estocada y se le premió con una oreja, que visto el conjunto de los festejos, podía parecer poco premio para el día de San Roque. Y es que, como ya se ha dicho, el público estuvo muy frío apoyando a los novilleros.

En el segundo novillo, otro buen eral, siguió mostrando sus buenas maneras, aunque fue desarmado con mucha facilidad, hasta siete veces, lo que deslució el conjunto de su trabajo.

Toreó bien con el capote, tanto en su lote como en el quite que hizo al primer novillo, que correspondió a su compañero de festejos. Sus dos banderilleros fueron aplaudidos tras excelentes pares. Mató de media estocada algo baja. Saludó desde el tercio.



Raúl Cámara

Abuztuaren 18ko zekorketa

Etorkizun handiko bi nobillero.

Puerto San Lorenzo eta Ventana del Puerto ganadutegiko lau zekor. Itxura oso onekoak, baina jokaera aldakorrekoak. Lehenengoan, plazari buelta eman zitzzion, zekor zintzoa baitzen eta tinko eta buru makur oldartzan baitzen. Ahoa itxita hil egin zen. Bigarren zekorra zaila izan zen, eta erasoak bakoitza burukada batez amaitzen zituen. Hirugarrena ona izan zen eta txaloak jaso zituen arrastean. Laugarrena, aldiz, mantsoa izan zen eta eskuineko adarretik zerbitzu ona egin zuen, baina ez zuen paserik izan ezkerreko adarrean.

Esau Fernandez, Camasekoa, Tudelako Eskolako ikasle da. Gorri-more eta urrez jantzia; ezpata (2 belarri) eta ezpata-kolpea atzealdean (belarri bat eta publikoak gogor eskatu zuen bigarrena ere). **Gomez del Pilar**, Parlakoa (Madril), zuri-beltzez, beronika erdia leku onean (belarri bat) eta beronika erdia beherantz atzealdean(txaloaldia).

Xabi Azkarate izan zen lehendakari eta egoki aritu zen. Ondo egin zuen hirugarrenari belarria ezatean. Jende kopuru handia zegoen, baina ez zen plaza bete.

Esau Fernandezek lortu zuen loterik onena zozketan. Lehenengoa publikoari eskaini zion. Eskuinetik aritu zen sakonean, luze, loturaz eta neurriz. Astiro toreatu zuen ezkerretik, natural bikain batzuk gozatuta. Bigarrenean, espero bezala aritu zen, baina ez zen lehen ergiarekin bezain ondo aritu. Bide horretatik jarraituta, etorkizun handiko nobilleroa da. Koadrila ona izan zuen laguntzaile, eta kideek ederkil toreatu zitzuten zekorrak. Hirugarren zekorra bandari eskaini zion. Torero on gisa, zekorra txalokatu zuen plazari buelta eman ziotenean.

Gomez del Pilarrek ez zuen zorterik izan zozketan eta loterik txarrena eskuratu zuen. Zekorrak oso gaizki toreatu ziren eta are okerrago aritu ziren banderilleroak, eta horrek ez zion ezpatari batere lagundu. Hala ere, etorkizun handiko toreroa dela erakutsi zuen, indar eta estilo handikoa, eta zekorrek baino askoz maila handiagoa izan zuen. Loteko lehena oso ondo toreatu zuen ezkerretik. Eroriko zalapartatsua izan zuen, baina ondorio txarrik gabekoa.



Gómez del Pilar

Novillada del día 18 de Agosto

Dos novilleros prometedores.

Cuatro novillos de la ganadería de Puerto San Lorenzo y la Ventana del Puerto. Excelentemente presentados de desigual comportamiento. Al primero se le dio la vuelta al ruedo por ser un novillo noble que embestía con fijeza y humillaba mucho. Murió con la boca cerrada. El segundo fue un novillo difícil que terminaba cada embestida propinando un guillotinazo. Un tercero bueno que fue aplaudido en el arrastre y un cuarto, manso, que sirvió por el pitón derecho pero no tuvo un pase por el pitón izquierdo.

Esau Fernández, de Camas y alumno de la Escuela de Tudela; de burdeos y oro; estocada (2 orejas) y estocada trasera (1 oreja con fuerte petición de la 2ª). **Gómez del Pilar** de Parla (Madrid), de blanco roto y azabache; media en buen sitio (1 oreja) y media trasera y algo caída (ovación).

Presidió la novillada Xabi Azcarate, que estuvo bien. Acertó no concediendo la segunda oreja en el tercero de la tarde. Excelente entrada sin llegar al lleno.

Esau Fernández se llevó el lote bueno en el sorteo. En su primero, que brindó al público, toreó por el derecho con profundidad, hondura, ligazón y templanza. Toreó muy despacio con la izquierda, deleitándonos con unos muy buenos naturales. En su segundo confirmó las expectativas, aunque no alcanzó los grandes momentos alcanzados en el primer lote. Si sigue en progresión es un novillero con futuro. Estuvo asistido por una excelente cuadrilla que lidió los novillos perfectamente. Brindó a la banda el tercer novillo. Tuvo el gesto torero de aplaudir al novillo cuando le daban la vuelta al ruedo.

Gómez del Pilar no tuvo suerte en el sorteo y se llevó el peor lote. Sus novillos fueron pésimamente lidiados y peor banderilleados, lo que no ayudó nada al espada. Sin embargo, demostró que es un torero con futuro, con mucha fuerza y clase, y estuvo muy por encima de sus dos novillos. Al primero de su lote lo toreó muy bien por la izquierda. Sufrió una aparatosa cogida sin consecuencias.



Esau Fernández

Abuztuanaren 20ko zekorketa

Zekorak gaizki aritu ziren.

Puerto San Lorenzo ganadutegiko bi zekor eta Ventana del Puerto ganadutegiko beste bi. Orokorean, itxura ona, baina jokaera oso ezberdina izan zuten. Lehena mantsoa eta makala; bigarrena zintzoa izan arren, ez zuen indarrik; hirugarrenak toreroari zerbitzua egin zion, baina mantsoa zen; eta laugarrena, zaila izan zen eta ez zuen jokorik eman.

Damian Castaño, Salamancako, gorri eta urrez jantzia; hiru zulaketa, bi beronika erdi eta deskabelloa (isiltasuna); zulaketa, beronika erdi zeharkatua eta 14 deskabello (isiltasuna, abisia eman ostean).

Juan del Álamo, Salamancako, gorri-more eta urrez jantzia; ezpata (bi belarri) eta beronika erdi oso ona (belarri 1, gutxiengoak eskatuta).

Aika Aizpurua izan zen lehendakari eta eskuzabal agertu zen sariekin.

Bigarren aldia da **Damián Castaño** Debako plazara datorrela, eta erdipurdika aritu zen. Publikoarentzat toreatu zuen eta atsegin egiten saiatu zen, baina ez zuen lortu. Ez zaio aurrerapenik nabaritu Deban izan zen azkeneko alditik. Lehena musika bandari eskaini zion.

Juan del Alamo ospakizunean ikusi ziren gauza on apurretaoak egin zituen. Lehenengoa publikoari eskaini zion eta ederto aritu zen zekorra zutik zegoen bitartean. Arerioa ezpata-kolpe tinko batez akabatu zuen. Bigarrenean, zekorak izandako gauza on bakarrak toreroak atera zizkion, eta leku onean emandako ezpata-kolpe erdi batez bukatu zuen. Badirudi etorkizun handiko nobilleroa dela.

Salamancako Rubén Holgado zoragarri aritu zen hiru zekoretan, eta espero moduan toreatu zuen.

Novillada del día 20 de Agosto

Fallaron los novillos.

Dos novillos de la ganadería del Puerto de San Lorenzo y dos de la ventana del Puerto. Bien presentados en general y con diferente comportamiento. Manso y flojo el primero; sin fuerza el segundo, que fue noble; valió el tercero para el torero, aunque manseó, y el cuarto fue un novillo que presentó muchas dificultades y que no dio ningún juego.

Damián Castaño, de Salamanca, de grana y oro; tres pinchazos, dos medias y descabello (silencio); pinchazo, media atravesada y 14 descabellos (silencio tras aviso).

Juan del Álamo, de Salamanca, de burdeos y oro, estocada (dos orejas) y una media muy buena (una oreja tras petición minoritaria).

Presidió Aika Aizpurua, que estuvo muy generoso en la concesión de trofeos.

Damián Castaño, pasó por segundo año consecutivo por la plaza de Deba, sin pena ni gloria. Toreó para el público y quiso agradar sin conseguirlo. No se le ha apreciado ninguna progresión desde su anterior comparecencia en Deba. Brindó su primero a la banda de música.

Juan del Álamo hizo lo poco bueno que se vio en el festejo. En su primero, que brindó al público, toreó espléndidamente mientras el novillo se mantuvo en pie, y acabó con su enemigo de una gran estocada. En el segundo, lo poco bueno que lució el novillo es lo que fue capaz de sacarle el torero que, tras un revolcón, lo finiquitó con una media estocada en muy buen sitio. Parece un novillero con futuro.

Actuó de sobresaliente en las tres novilladas Rubén Holgado, de Salamanca, que cumplió.



Damián Castaño



Juan del Álamo